

Ihesi

Euskal Herria ezagutuz

TESTUA ETA ARGAZKIAK:
TERESA SALA

Hondarribia (Gipuzkoa)

Pasabide berdean barrena

Badago Hondarribia bat, arrantzale, hondartza, portu, harresi eta alde zaharretik at kanpotarrarentzat ezezagun agertzen dena. Ezezaguna bezain ederra. Ezusteko lasaia, otzana, barea.

Txingudiko badia Gipuzkoan dagoen padura ingurunearen eredurik onena da. Hezegune berezia, balio ekologiko aintzatetsia duen espazio naturala. Gainera, hegazti mota askotako migrazio-bidean kokatuta egoteak babesleku garrantzitsu bihurtu du. Baina, horretaz guztiaz gain, itsaso, ibai, zibilizazio eta bizitza basatia hain gertu dituen ingurune honek lasaialdi-

rako egiten du gonbita. Eta oso gertu, errepidea eta automobilak ikus badaitetzeke ere, ezinezkoa da beren hotsa entzutea, sakonegiak baitira ahate eta txorien joan-etorriak, zuhaitzen xuxurlak eta aintziren doinu samurrak.

Hiri eta industria garapenaren ondorioz itsasadarraren padura eremu zabalak desagerrarazi arren, Txingudiko Baliabide Naturalak

Babestu eta Antolatzeko Plan Bereziaren aplikazioak hezegune honen eremu handi baten kontserbazioa ahalbidetu du. Eusko Jaurlaritzak onetsitako Plan Bereziaren helburua Txingudiko badia zaindu eta berriztatzea da, eremuan dauden ingurumen balioak eta bertako erabilpen beharrianak bateratuko dituen eredu baten pean.

Plaiiaundi parke ekologikoa, babes berezi gisa sailkatutako 23,4 hektareako eremua.





Ezkerrean, Jaitzubiako ikuspegi bat airetik. Eskuinean, ahateak Jaitzubiako paduran.

Jaitzubiako padura

Hondarribiko aireportura heldu baino lehentxeago, ezkerreko aldean, Amute auzoa dago. Bertatik jarraitu behar da Jaitzubiako paduretara iristeko. Distantzia laburra den arren, arrotzak behin behintzat galdetu egin beharko du, zuzeneko bideari eusteko. Tartean, badaude oinez datozen koadrilak, eta baita bizikletan lasterka abiatzen diren gaztetxoak ere. Baina ingurunea barea da, eta ez dirudi baretasun hori bortxatzeko gai den inor agertuko denik. Automobilak mahastiz eta loraz inguratutako Beko Errota jatetxe entzutetsuaren aparkalekuan uztea dirudi egokiena, bertatik padurarantz doan ibilbidea hasteko.

Txango eroso da, aldapa gutxi eta ingurune atsegina eskaintzen dituen. Bidean, bizpahiru baserri eta hesiz inguratutako txalet gutxi batzuk, sarreran “kontuz txakurrare-

kin” kartelak dituzten horietakoak. Bat-batean, zingira txiki bat eta beheago hezeguneak, kanaberaz, lokatzez eta hegaztiez zipriztinduak. Mariandreseneko zubia, Atontzolo izeneko gunea, San Joakin padura, Zarautzeneazpi hezegunea, San Joakin aintzira geza, Behatokia... 70,4 hektarea babestuek ditu Jaitzubiako ibarrak. Horietatik 38,1 babes berezikoak dira eta gainerakoak, aldiz, nekazaritzarako babestuek. Babes bereziko guneen berritzea 2003. urtean hasi zen, lurra itsasotik bakartzen zuten euste-hormen zati bat botaz eta padurari XVIII. mendetik lehorturik zeuden 25 hektarea inguru itzuliz.

Ibaitik itsasorainoko trantsizio naturalaren Txingudiko erakusgarri bakarra da Jaitzubia, eta Bidasoako padurak Jaizkibel mendiarekin uztartzen dituen pasabide berdea osatzen du.

Plaiaundi parke ekologikoa

Babes berezi gisa sailkatutako 23,4 hektareako eremua da Plaiaundi parke ekologikoa. Iruneko udalerr-

ra abiatu behar da bertara iritsi ahal izateko. Lapurdirantz N-1eko 478. kilometrotik sarrera zuzena aurkituko du automobilez abiatzea erabakitzen duenak. Parkeko sarreran Txingudiko paduren interpretazio zentroa aurkituko du bisitariak. Han, informazio gune eta beste hainbat baliabide aurkitzeaz gain –besteak beste, gunea natural honetan egiten diren ikerketa eta ingurumen hezkuntzako lanak zuzentzen dira–, hegazti, zingira eta landaretza miatu ahal izateko behatoki batekin egingo du topo bisitariak. Gomendagarria da bertatik ingurunea kontu handiz begiratzeari, baina are gomendagarriagoa kanpora atera eta pazientziatzat bidexkak jarraitu eta ezusteko ezkutalekue-
tan barneratzea. Isilik eta presa gabe ibiliz gero hamaika aukeraz zipriztinduko da txangoa. Apoarmatuak ager daitezke, ahateak, zisneak edo martin arrantzaleak; satitsuak, lur-saguak, apo lasterkariak edo ur-igelak. Ibilbidearen amaieran Hondarribia ikus daiteke, eta itsasoa. Tartean, ur geza eta gazia nahasten dituen pasabide berdearen mirariak. ■



Hondarribiko Udala
Tel.: 943 11 12 11

HONDARRIBIA
BETI ZURE ZAIN
www.hondarribia.org

Turismo bulegoa
Tel.: 943 84 54 58

Hondarribiko Udala
Euskara Zerbitzua

